



BAZKIDE GARRANTZITSUAK

Gure enpresa errazago aurrera eramateko aliantza garrantzitsu batzuen laguntza izango dugu. Gure enpresaren **aliantzarik garrantzitsuena gure hornitzailea TOO GOOD TO GO enpresa** izango da, bertan erosiko ditugun elikagaiak dira eta nagusiki sukaldatzeko eta errezetak sortzeko erabiliko ditugunak. Aplikazio honekin **aliantza** bat sortzen saiatuko garenez, zenbait **abantaila jaso** ditzakegu.

Alde batetik, abantaila bat, **produktuak azkarrago** jaso ditzakegula izango da. Aplikazioan, jendeak produktuak jasotzeko ordu zehaztu bat dute, hau da, ezin dute haiek nahi duten orduan elikagaiak jasotzera joan. Alabaina, guk, gure aliantzari esker, **elikagaien lehenago edo beranduago jasotzeko aukera izango dugu**. Horrela, lehengaiak biltegitatu orde, erosi eta segituan erabil ditzakegu.

Beste pribilegio bat aplikazioko **pack-ak erreserbatzeko lehenatasuna** izango dugula da, hau da, inork baino lehen eskuragarri egongo diren pack-ak ikusteko aukera izango dugu, eta hauek erreserbatzekoa. TOO GOOD TO GO aplikazioan, inork ez du lehenatasunik elikagaiak erreserbatzeko garaian, baina guk haiekin adostuta eduki dezakegu, eta horrela, **inor ez zaigu aurreratuko elikagaiak erosteko orduan**.

Gainera, **eskaintza bereziak** edukitzeko aukera eduki dezakegu. Handizka erosteagatik, alegia, pack asko erosteagatik, **gutxiago ordaindu dezakegu**, edo **deskontuak egin diezazkigukete bezero ohiak izateagatik** eta badakitelako guk beti edukiko dugula lehenatasuna haiekin erosteko, horregatik **haien konfiantza irabaz dezakegu**.